

## 1. FITXA: Zer dauka zigarro batek?

Tabakoan, 4000 gai inguru aurkitu dira, eta gutxienez horietako 40 kantzerigenoak dira.

### ZER DAUKA ZIGARRO BATEK?

Hauek dira zigarroaren kean aurki daitezkeen gai kimikoetako batzuk.





## TABAKOAREN OSAGAI NAGUSIAK ETA HAIEN ERAGINAK

Karbono monoxidoa:	Mundruna:	Amoniakoa:	Nikotina:
<p>Ibilgailu edo galdara akastun baten ihes-gas bera da.</p> <p>Kontzentrazio altuetan hilgarria da eta dosi baxuetan zelulen oxigenazioa zailtzen du, hemoglobina blokeatzen baitu eta, ondorioz, hematiek ezin dute oxigenoa eramane denbora-tarte luzeetan.</p> <p>Norbaitek esfortzu fisiko bizia egiten duenean, oxigeno gehiago behar izaten du; hortaz, erretzaileak gehiago nekatzen eta akitzen dira, oxigeno gutxiago baitute.</p>	<p>Kaleak zolatzeko erabiltzen den sustantzia bera da mundruna.</p> <p>Hauek dira haren eraginak: biriketako minbiziak, bronkitis kronikoak, enfisema.</p> <p>Nahikoa oxigenoa hartzea eragozten du, trakearen zilioak geldiarazten ditu eta, hortaz, hauts-partikulak ez dira kanporatzen arnasbideetatik.</p> <p>Mundrunak orbanak sortzen ditu hortzetan eta eskuetako azala zikintzen du, pertsonen kanpo-irudia kaltetuz.</p>	<p>Tabako-industriak amoniakoa gehitzen dio tabakoari nikotinak eragindako mendetasuna handitzeko.</p> <p><b>Bestelako gai narritagarriak:</b></p> <p>Erretzaile askok duten eztularen errudunak dira. Gai narritagarri horiek (fenolak, amoniakoa...) bronkioak kaltetzen dituzte. Eta horrek kirola egiteko gaitasuna murrizten du...</p>	<p>“Mendetasuna” sortzeko gai erruduna da, hau da, erretzaileari asko kostatzen zaio erretzeari uztea, eta, tabakoa falta zaionean, oso urduri eta umore txarrez egon daiteke.</p> <p>Nikotinak hodiak uzkuertzeko indarra du; horrek esan nahi du gure zainen eta arterien diametroa murrizten duela.</p> <p>Hortaz, odolak zailago zirkulatzen du gure organismotik.</p> <p>Era berean, arteria-tentsioa handitzen du eta bihotza behartzen du lan gehiago egitera (huraxe da bihotzeko gaixotasunen jatorria).</p>



Jarraian, osatu laukia tabakoaren osaeraren eskemaren informazioarekin:

Sustancia química	USOS
	Azazkalen esmalte-kentzekoaren eta pinturen disolbatzaileen osagai nagusia d
	Errepideak zolatzeko sustantzia beltza.
	Garbitzeko produktuen osagaia: komunak, lurrak, etab.
	Arratizidek duten pozoia
	Plastikoak, lubrifikatzaileak, pinturak, etab. fabrikatzeko da. Gai kantzerigenoa
	Etxeko erregaia (gas-bonbonak)
	Bateriek badute. Gai kantzerigenoa.
	Bakterizidetan, itsasgarrietan, etab. erabiltzen da
	Barbakoak eta parrillak pizteko pastillak.
	Erregai gisa erabiltzen den gasa.
	Suzirien erregaia, pinturen disolbatzailea, autoen izotz-kontrako likidoa.
	Gas pozoitsua, autoen ihes-kean ere dagoena.
	Intsektizida, mendetasuna sortzeko gai erruduna.